

# AZKEN HITZAK

-Jokin Uribe- epaileak bere betaurrekoak jarri zituen azken aldiz, bere aurrean zituen paperak irakurtzeko eta, berriz ere niri begiratu zidan, betaurrekoak kendu ondoren- altxa zaitez, mesedez.

-Bai, epaile jauna- erantzun nuen, nire aulkitik altxatu nintzen eta eztarria garbitu nuen, jakako botoiak lotzen nituen bitartean.

-Epaimahai honek erabaki bat hartu du lau, zortzi, bi, bost, zortzi kasuan- hasi zen metro gutxitara nuen gizon zahar hura- sinestezina da mundu honetan zu bezalako pertsonak oraindik gela honetan ikustea eta, egia esan behar badizut, Uribe jauna, zu bezalako gizon bihotzgabeak nazkaturik naukate- lotsaturik, burua jaitsi nuen- ez zaitut hemen gehiago ikusi nahi, ezta epaiketa hau gehiago luzatu ere, oraindik beste lau ditudalako- betaurrekoak kendu zituen mahai gainean usteko eta bere begiak garbitu zituen eskumako eskuarekin, nekatuta zegoela ematen zuen- Jokin Uribe, epaimahai honek errudun ikusten, hartzen eta izendatzen zaitu Miren Ansorena, zure emaztearen hilketan- buruarekin baietz esan nuen, mingarria izan bazen ere, baina egia zen- hori dela eta berrogei urteko espetxe zigorra ezartzen dizut- bere aulkitik altxatu zen- epaiketa bukatutzat ematen dut- betaurrekoak eta bere paper guztiak batu zituen- egun on guztioi.

“Egun on guztioi”, harekek izan ziren epailearen azken hitzak eta hemen nago ni, espetxeko liburutegi txikian, burumakur paper hauen aurrean, nire oroitzapenak idazten. Gaur, otsailak hogeita lau, leku honetan pasako dudan azken eguna da. Jada ezin dut hemen gehiago egon, kartzela honek nirekin bukatu du eta ezin dut aurrera jarraitu, ez dut indarrik, horregatik nire buruaz beste egitea erabaki dut, leku hau ez dago niretzat eginda eta nahikoa jasan dut bost urte hauetan. Paper honetan idatziko ditut nire azken hitzak, paper hau izango da nire azken eginbeharra mundu honetan eta, egia esan behar badut, beldurtuta nago, ez da batere erreza bizi espetxean sartu ninduen egindakoarekin aurrera jarraitu, inoiz ez nuen pentsatu halako gauza krudelik egingo nuela, inoiz ez nuen pentsatu nire emaztea, nire Mirentxu maitea hilko nuela, inoiz ez nuen pentsatu halako pertsona batetan bihurtuko nintzela. Egindakoaz hitz egiteak lotsa ikaragarria ematen badit ere, paper honetan gertatutako guztia kontatuko dut. Hauek dira nire azken hitzak:

Garai txarrak ziren lan egiten nuen fabrikarako, garai oso txarrak, bertako zuzendaritzak lanetik botako zituzten zerrenda beltz probisional bat aurkeztu zuen, hogeita bost izenez osatutako zerrenda bat eta nirea hamaseigarren postuan zegoen, horrek gauza bat bakarrik esan nahi zuen: nire lanpostutik botako zidatela laster. Hamar urte neramatzan fabrika horretan lanean, hamar urte, arin esaten da, baina jada horrek ez zuen axolarik, egun gutxitan kalean ikusiko nuke nire burua eta zerbait pentsatzen hasi behar nintzen, beste lan bat bilatzen hasi behar nintzen, kostala ala kostala.

Zerrenda agertu eta egun pare bat geroago deitu zidaten zuzendaritzara, bertan esan zidaten lanetik kanpo nengoela egiten ari ziren ebakuntzak zirela eta ez zirela. Miseria bat eman zidaten indemnizazio bezala, ehun mila euro zikin, hogeita mila euro zikin egindako hamar urtegatik. Burla bat izan zen niretzat, irribarre bat eta hogeita mila euro ziztrinekin bota ninduten

kalera txakur gaizto bat izango banintz bezala, horrela eskertu zidaten lan egindako hamar urteak eta ni beti enpresari laguntzeko prest egon nintzen, edozein arazotan, baina, antza denez, beraiek ez zuten berdin ikusten. Nola esango nion nire emazteari lanetik bota nindutela? Nola hartuko zuen berria?

Etxera heltzeko beldur nintzen. Ez nekien nola kontatu Mireni berri txar hau, ez nekien nola jarraituko genuen aurrera bere soldata txikiarekin eta, antza denez, egoera ekonomikoa ez zegoen nire egoera tamalgarria konpontzeko prest, arratsalde oso osoa pasatu nuen hainbat enpresatik lana bilatzen, baina alferrik izan zen, inork ez zidan kontratatu nahi, fabrika gehienek arazo larriak zituzten aurrera jarraitzeko, hala ere, horrek ez zidan geldiaraziko, inola ere ez, lan bat aurkituko nuen, bai ala bai, harekek ziren nire bi aukerak.

Ia gaueko hamarrak aldera heldu nintzen etxera, denborak hegan egin zuen lan bila nenbilen bitartean, ez nion telefonoari ere erreparatu eta seguruenik nire emazte maiteak baten baino gehiagotan deituko zidan, non sartu ote nintzen galdezka, arduratuta. Poltsikotik giltzak atera eta etxeko atea zabaldu nuen, barruan dena ilunetan zegoen, hala ere, argi izpi bat zegoen egongelan, janariz barra-barra zegoen mahai baten gainean zeuden hiru kandlez osatutako argi izpi bat. Zer demontre gertatzen ari zen? Zer dela eta hainbeste janari? Egia esan behar banuen, sutan jarri zidan egoera horrek.

-Kaixo, laztana- agurtu zidan Mirenek, sukaldetik atera zenean.

-Zer da hau?- galdetu nuen, mahaiari begiak kendu gabe.

-Gaurko afaria- erantzun zidan nire emazteak.

-Eta zergatik hainbeste gauza?- jarraitu nuen.

-Gauza bat daukagu ospatzeko- esan zuen Mirenek.

-Gauza bat daukagu ospatzeko- errepikatu nuen, buruarekin baieztatzen, baten baino gehiagotan- gauza bat daukagu ospatzeko eta jakin daiteke zer daukagu ospatzeko? Zer daukagu ospatzeko?

-Nire enpresan lanpostuz igo naute, orain zuzendariaren idazkaria naiz- hasi zen Miren- nire gela propioa izango dut eta soldata bikoiztuko didate- ez nuen ezer esan- ez nauzu zoriondu behar?

-Eta non usten dit horrek?- galdetu nuen, nire ahotsaren tonua altxatzen- ez al zenekien lan egiten dudan fabrikan jendea kalera botatzen ari zirela? Nire izena zerrenda beltz horretan zegoela? Kanean nago, Miren, kanean. Badakizu zer den hori niretzat? Arratsalde osoa pasatu dut lan bila, baina ez dut ezer aurkitu.

-Nik pentsatzen nuen zerrenda probisional bat zela- erantzun zidan nire emazteak- oso langile ona zara eta ez nekien zure lanpostutik botako zintuzketela- nire ondora hurbil zen- lasai, maitea, ikusiko duzu nola laster zerbait aurkitzen duzun, ez zaitez horretaz arduratu, dena ondo irtengo da- bere besoekin atzetik besarkatu zidan- horren bitartean, nire soldata berriarekin konformatu beharko gara.

-Zure lan berriko soldata berriarekin?- nire aldetik alden du nuen, bultzakada batekin- enpresako zuzendariaren idazkaria- irribarre maltzur bat irten zitzaidan ezpainetan- orain oso argi ikusten dut dena, banekien ume amazulo horrek edozer gauza egingo zuela zu bere ondoan egoteko.

-Baina jakin daiteke zer esaten ari zaren?- galdetu zidan Mirenek- Jokin, mesedez, ez esan txorakeriarik.

-Txorakeriak, horia da- erantzun nuen, bera ikusteko nire gorputza biratzen- txorakeria bat da bere telefonoko zenbakia zure agendan egotea? Txorakeria da bere eskuak zure gorputza laztantzea fotokopiak egiten zenituen bitartean? Txorakeria da astelehen guztietan lore berriak zure mahai gainean egotea? Jakin al daiteke zer dagoen zuen bion artean?

-Baina zer esaten ari zara?- orain nire emazteak altxatu zuen ahotsa- zer esaten ari zara? Nire nagusiarekin zerbait dudala?

-Ez dakit, hori zuk esan beharko didazu. Zerbait daukazu Unaiekin?- galdetu nuen, besoak nire aurrean gurutzatzen.

-Eta horrela bada, zer? Berriro joko nauzu? Betiko moduan? Aldatu zara, Jokin, aspalditik aldatu zara, jada ez zara maitemindu nintzen gizona, orain edozer gauzagaratik jotzen eta zirikatzen nauzu- esan zuen nire emazteak.

-Egia da orduan, berarekin zaude. Puta halakoa!- erantzun nuen, berarengana hurbildu nintzen eta zaplazteko bat eman nion, lurrera botaz, mahai ondoan- nola ausartu zara horrelako zerbait egiten?

-Hara bestea- esan zuen Mirenek, eskumako eskua ahotik pasatzen, bertako odol haria garbitzeko- zuk galdetzen didazu nola ausartu naizen horrelako zerbait egiten? Zuk? Kabroi halakoa.

-Errepikatu hori, ausartu zaitez hori errepikatzen- xuxurlatu nuen.

-Kabroia- errepikatu zuen nire emazteak.

Bere aurka egin nuen, nire eskuak bere ezterrira gidatzen, bertan itotzeko gogoak sartu zitzaizkidan eta, antza zenez, horretara nindoan, beste ezertan pentsatu gabe. Hor egon nintzen, nire emaztearen arnasa akabatu nahian, bera, bitartean, ni gainetik kentzeko saiatzan zen, baina ezin zuenez, mahai gaineko plater bat hartu eta nire aurpegian apurtu zidan, kolpe gogor eta bakar batekin:

-Puta zikina!- madarikatu nuen, lurretik altxatzen eta nire aurpegiko odola eskuarekin geldiarazten.

-Ukitzen didazun azken aldía izan da hau, ez dut halakorik gehiago jasango- esan zuen Mirenek- oraintxe bertan ertzaintzara joango naiz eta salaketa bat jarriko dut, gainera, hori gutxi ez bada, zutaz dibortziatuko naiz.

-Unaiekin joateko?- galdetu nuen- ezta pentsatu ere ez.

-Bai, Jokin, hau bukatu egin da eta, egia esan, ez dakit zergatik itxaron dudan hainbeste zutaz aldentzeko- esan zuen Mirenek, lurretik altxatzen eta gorrotoz beteriko begiekin begiratzen- orain dela asko bukatu behar izan nuen amets gaizto hau eta ez gehiago sufritu, sufritu izan dudan bezala.

-Ez dut inola ere ez onartuko, ez dut inola ere ez onartuko- ezeztatu nuen, berriro ere nire emaztearen aurka egiten.

Honako honetan, nire emazteak laban bat hartu zuen mahai gainetik ni beregana hurbildu ez nendin, baina horrek ez zidan geldiarazi. Bion artean indarrak neurtu genituen, labanaren jabetza nork izango zuen, baina argi utzi nuen nire indarra handiagoa zela eta laban hori eskutik kendu ostean sabelean sartu nion, gorputzean nuen amorru guztiarekin. Mirenek oihu mingarri bat irteten utzi zuen bere eztarritik eta belauniko lurrera erori zen, bere eskuak sabelera eramanez:

-Miren- orduan konturatu nintzen zer egin nuen, orduan konturatu nintzen zer egin nuen labana horrekin- Miren! Miren!- oihukatu nuen, bere ondoan belaunikatzen eta nire besoetan hartzen- zer egin dut? Zer demontre egin dut?

-Jokin, Jokin- begietara begiratu zidan, bere begietatik bi malko erortzen usten- kabroi halakoa.

-Miren- deitu nion, begi biak itxi zituenean- Miren, zabaldu begiak, zabaldu begiak, mesedez. Miren! Miren!- berriz ere deitu nion, bere gorputza astinduz, baina alperrik izan zen, hilik zegoen- ez, ez, hau ezndabil gertatzen- lurretik altxatu nintzen, eskuak burura eramaten- zer egin dut? Zer demontre egin dut?- nire eskuetara begiratu nuen, odolez beterik zeuden, nire emaztearen odol gorritz beterik- zertan bihurtu naiz?- begietatik malko bi erori zitzaizkidan eskuetara eta itxi egin nituen, odolez beteriko bi ukabil bihurtuz- zertan bihurtu naiz? Munstroa, hori da, munstro baten bihurtu naiz- nire emaztearen gorpuari begiratu nion- barkatu, Miren, barkatu. Ez zaitut bizitza honetan zoriontsu egin, ezta beste beso bero eta goxo batzuetan zoriontasun hori bilatzen utzi eta ez zenuen bukaera hau merezi, inork ez du holako bukaerarik merezi.

Azkeneko aldiz, gorpuaren ondoan belaunikatu nintzen, bere aurpegia laztandu nuen eta sabeletik labana kendu nion, mahaira hurbildu nintzen eta bertako trapu zuri batekin labana estali nuen, gero, nire fraketako eskuineko poltsikoan gordetzeko. Etxeko atetik irten nintzen kalera joateko, banekien zer egin behar nuen eta aspaldiko partez zerbait ona egin nahi nuen, nire bekatuak garbituko zituen zerbait. Pausoka, poliki eta batere prisa barik, kaleetan barrera murgildu nintzen, egindako azken gauzak oraindik buruan bueltaka nituela, oraindik horrela nola bukatu nuen pentsatzen nuela, zergatik hil nuen nire emazte maitea pentsatzen nuela, baina horrek jada ez zuen axola. Hamabost minutu, gutxi gora behera, oinez egin ondoren, azkenean, poliziaren kuartelera heldu nintzen, hala ere, nire pausoak gelditu nituen eta arnasa sakon hartu nuen, begiak itxi eta txua irentsi nuen, kaleetan barrenean nenbilen bitartean erabaki bat hartu nuen eta erabaki horrekin aurrera jarraituko nuen. Azken arnas sakon bat hartu eta atera hurbildu nintzen:

-Aurrera- ate ondoko gizonak pasatzen utzi zidan.

-Gabon- agurtu nuen bere mahaiaren atzean zegoen ertzaintzak.

-Gabon, jauna. Zerbaitetan lagundu zaitzaketa ordu hauetan?- galdetu zidan, bere paperetatik burua altxatzen.

-Halaxe da, jauna- baieztatu nion- salaketa bat jartzera etorri naiz, nire burua salatu nahi dut.

-Barkatu?- poliziak ez zuen ulertu esan nahi nuena.

-Nire burua salatu nahi dut- errepikatu nuen, Miren hiltzeko erabili nuen labana mahai gainean jartzen- nire emaztea hil dut.

Hori izan zen gizon libre bezala egin nuen azken gauza, benetan gauza krudela, benetan gauza nazkagarria, barkamenik gabeko gauza bat. Besoa eta eskua nekatu zaizkit eta begietan nituen malko guztiak erori zaizkit jada, gelditzen zitzaizkidan indar guztiak agortu ditut, baina oraindik apur bat geratzen zait azken gauza bat egiteko eta gelditzen zaizkidan indar guztiak behar ditut mundu honetatik alde egiteko, ez dut gehiago espetxe honetan egon nahi, ez dut bizitzen jarraitu nahi, badakit nire buruaz beste egitea koldarkeria hutsa dela, baina ez dut beste erremediorik, ez dakit beste zer egin dolu honekin amaitzeko. Agur denoi eta barkatu egindako guztiagatik, benetan diot.

## AMAIERA